

Data	Biktimak	Polizia mota	Libre kargurik gabe
2002/02/26	Uxua Olaia Espinal	Guardia zibila	
2003/10/08	Carlos Martin Sanchez	Polizia	
2003/11/18	Xabier Otaegi Olasagasti	Polizia	Libre kargurik gabe eta epaiketarik gabe, 22 hilabete kartzelan pasa ondoren.

- Lan-talde honek kontatu dituen 191 atxilotetatik 51 dira taula honetan agertzen diren kasuak -3 emakume eta 47 gizon (hauetako bat bi aldiz)-. Atxilotuak izan zirenean eta poliziaren zaintzapean zeudela, torturak sufritu izana salatu zuten guztiek. Baliteke kopuru hau zuzena ez izatea, kasu batzuen inguruko datuak falta izan zaizkigulako eta beste batzuen kontrastea egiteko aukera izan ez dugulako.
- 27 kasu Guardia Zibilar ekoizten zaizkio, 20 Poliziari eta 4 Ertzaintzari.
- Taulan hauteman daiteke, 18 kasutan, nahiz eta kargurik gabe libre geratu diren, tortura jasan izana salatu zutela, komisaldegitik edo kuarteletik pasa ondoren.
- Aurreko datuez gain, badaude beste hainbat pertsona, tratu txarrak jasan izana salatu zutenak -Haritz Iparragirre Yarzaren kasua esaterako, 2001eko ekainean. 1976ko martxoaren 25ean, Guardia Zibilak atxilotu zituen Michelingo zazpi langileetatik baten izen abizenak ez ditugu lortu. Zazpi atxilotu hauek tratu txarrak salatu zituzten eta aipatu dugun azken hau Donostiako Osasun-etxean ingresatu zuten <sup>38</sup>.
- Kasu batzuetan zaila da tratu txarra jasan dituzten kasuak eta tortura kasuak bereiztea. Hauen artean Jose Antonio Peña Martinen testigantza dugu. Gizon honek dio, 1982ko ekainak 15ean Guardia Zibilak atxilotu zuela baina ez duela itaunketaren inguruko oroitzapen argirik, sustantziaren bat injektatu ziotelako -zer injektatu zioten ez dago jakiterik-. Hiru egun ondoren libre utzi zuten.
- Ez dugu garbi nola sailkatu, 1976ko maiatzaren 13an, Michelingo greban, atxilotu zituzten zortzi emakumeen kasua. 28 ordu pasa zituzten atxilotuak eta horietatik 12 -gaueko hamabitatik eguerdiko hamabiak arte-, furgoneta batean izan zituzten giltzapetuak, Donostiako Komandantziaren aurrean. Epaitegi militarra eraman zituztenean, epaileak ez zuen euren aurkako kargurik aurkitu eta aske utzi zituzten<sup>39</sup>.

<sup>38</sup> MENDIZABAL MUGURUZA, Luis (coord., 1977). Lan taldea: AMILIBIA DONNAY, Endika, BEREZIARTUA UNANUE, Maitere, OLASKOAGA ITURRI, Juan, PÉREZ CARRASCO, Félix eta TOBAR MIGUEL, Ana. *Michelin: Cien días de lucha frente a una multinacional*. Autoedizioa, 113. orrialdea.

<sup>39</sup> Lan berean 139 eta 140 orrialdeak.